

Aditz laguntzailea : denbora

Gogoratu: aditzak esaldi batean ekintza , egoera edo izatea adierazten du eta esaten digu ekintza hori noiz burutu den: iragana, orainaldia edo geroaldian. Adibidez:

- Ni ibili nintzen (atzo).
- Ni ibili naiz (duela gutxi).
- Ni ibiltzen naiz (orain, egunero).
- Ni ibiliko naiz (bihar).
- Guk ikusi genuen (atzo).
- Guk ikusi dugu (duela gutxi).
- Guk ikusten dugu (orain, egunero).
- Guk ikusiko dugu (bihar).

1. Adierazi azpimarratutako aditzek orainaldia, lehenaldia edo geroa adierazten duten.

Kaixo, Johin:

Zelan zaude. Atzo hirian bizikleta berria erosi genuen. Nire osabak oparitu zidan harkoa ere ekarri genuen. Gaur gosaldi eta gero, bizikleta prestatu dugu eta ondoko herriraino joan gara.

Bihar goizean, eguraldi lihaina egingo du, hala iragarri dute behintzat, eta igandea denez, giro aparta izango dugu bidegorritik ibiltzeko. Kosta aldera joango gara.

Idazten dizut zuh gero ez esateko "ez didazu esaten noiz zoazen bizikletan", animatu, bestela, kontatuko dizut astelehenean.

Asier

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • erosi genuen : • oparitu zidan : • ekarri genuen: • egingo du: • iragarri dute: | <ul style="list-style-type: none"> • izango dugu: • joango gara: • idazten dizut: • ez didazu esaten: • kontatuko dizut: |
|---|---|

2. Aukeratu erantzun zuzena kasu bakoitzean.

- Atzo gauean nik batere lorik egin.
- Etzi gu gereziak hartzera.
- Biharamunean haiek txango batera.
- Orain zu izozki bat.

3. Idatzi aditz hauen forma puntukariak.

Zuk atzo bizkar-zorroa eraman <input type="text"/>	Zuek atzo saria irabazi <input type="text"/>
Guk gaur ondo pasatu <input type="text"/>	Zu atzo joan <input type="text"/>
Haiek gaur egunkaria ekarri <input type="text"/>	Hark gaur txirula jo <input type="text"/>
Haiek partida gaur galdu <input type="text"/>	Nik atzo ogia erosi <input type="text"/>
Gu atzo etorri <input type="text"/>	Haiek gaur irratia entzun <input type="text"/>

4. Idatzi esaldi hauek iraganean:
- a. Otso bat ageri da basoan.
 - b. Ardiak beldur dira.
 - c. Artzainak ardien beekak entzuten ditu.
 - d. Otsoa gose da.
 - e. Artzaina oihuka hasi da.
 - f. Zertan dabil Zuri?, artzainaren txakurra.
 - g. Txakurrek ardiak zaintzen dituzte.
 - h. Bat batean, Zuri eta bere lagunak agertu dira.
 - i. Otsoa ihesi joan da.
 - j. Artzainak Zuri zoriondu du.

